

noaia

Jostailu Erabilién Azoka
prestatzen hasi dira
Hitz Ahoko kideak

Euskarazko Produktuen
Katalogoa, euskara
oparitzeko gida aparta

Santo Tomas
Azokako lehiaketetan,
izen ematea irekita

Nerea Altxu, parekidetasun teknikaria

**“Krisialdiak eskubideen
murrizketa nabarmen bat
ekarri du”**



ZUEK EGITEN DUZUE POSIBLE

Herri aldizkaria, aldizkariaren banaketa,
noaia.com, Udajolas, Inauteri Jaia, Kulturaldia,
Santo Tomas azoka, bestelako argitalpenak...

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA JASO OPARIA!

noaia
euskararen aterpe



Abenduaren 16an, **SantoTomas** azoka Har ezazu parte **babarrun** eta **sagardo** lehiaketan




Partehartzaile bakoitzak babarrun kilo bat aurkeztu beharko du.
Sagardo lehiaketan, aldiz, zortzi botila.



Izen ematearekin batera, lehiaketan parte hartuko duten
babarrun eta sagardoak ekarri beharko dira NOAUA!ko egoitzara.

**Izen emateko datak: azaroaren 26tik 30era eta
abenduaren 10etik 13ra (lau datak barne).**

Informazio gehiago: 943 360 321



Albisteak iruditan

Odolaren Mintzoa, "Banden Lehia 2012" txapelketako finalean

Azkue Fundazioak euskal musika talde amateurrik onena saritzeko antolatzen du Banden Lehia 2012 txapelketa. Lau garren edizioko finalerako sailkatu da Usurbilgo talde bat; Odolaren Mintzoa. Ostiral honetan, azaroaren 30ean, iluntzeko 20:00etatik aurrera Bilborock aretoan beste hiru talderekin batera lehiatuko dira, Luken Arkarazo, Beñat eta Joanes Txueka eta Jokin Irastorza.

EPAIMAHAIK ERABAKITA

Lau musika talde igaro dira azken txanpa honetara. Hauetatik bi, sarean jasotako bozka kopuruarekin hautatuak izan dira, eta beste biak, Odolaren Mintzoa tartean, epaimahaiak aukeratu. Taldeak berak NOAUA!ra bidali duen oharrean adierazi duenez, "ez genuen inondik ere finalera iristea espero eta oso pozik gaude". Informazio gehiago helbide honetan: www.bandenlehia.com



Odolaren Mintzoa taldekoak, artxiboko irudi batean (argazkia: GabrieleGu).

Laburrean

Sortu eratzeko bigarren batzarra, abenduan

Iragan larunbatean 40 lagun elkartziren Potxo-enean, Sortu eratzeko lehen herri batzarrean. Bigarren batzarra, abenduaren 15erako antolatuta dute. Ildo politikoa izango da bigarren saio honetako lanketarako gaia.

NOAUA! aldizkaririk ez, abenduaren 7an

Azaroaren 30eko astekari honen ondoren, datorren NOAUA! hamabost egun barru argitaratuko dugu. Hau da, abenduaren 7an ez da astekaririk izango eta hurrengo zenbakia, hilaren 14an izango duzue esku artean.

4.212 euro jaso ziren pilota jaialdi benefikoa

Aurreko astean aipatu genuen moduan, arrakasta handia izan zuen Pilota Elkartearen jaialdi benefikoa. Antolatzaileek zera adierazi nahi dute: "4.212 euro garbi jaso dira aulkiak erosteko. Mila esker denei!".

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkartea@noaqua.com /// www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeka.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaqua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeka, Aritz Gorriti,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Aloña Esnaola,

Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Aina

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu


Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euzko Lehen Herria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Luis Aranalde**

Shalom

Duela hilabete juxtu Israelen ginen. Zorte bikaina izan genuen! Gu etxeratu eta berehala piztu baitzen egun hauetan komunikabideetan entzun eta ikusi dugun gerra aurreko egoera latza: 150 hildako (erdiak emakumeak eta haurrak) eta milatik gora zauritu.

Ez da izango munduan beste herri bat honek hainbat historia, kultur eta erlijio daukanik bere baitan. Euskal Herriaren tamainakoa da, beraz, oso ttipia. Aldi berean, bertan bizitzea da judutarren eta palestinarren ametsa: bi herri horientzat lurralde hori da beren historiaren jatorria eta jakina, bakoitzak berea bezala errebindikatzen du. Judutarrentzat Jainkoak (Yahvé) Abrahami eta bere ondorengoei agindutako lurra da eta palestinarrentzat, berri, mendeetan zehar beren etxea izan zen lekua eta bertan Mahoma zeruratu zen gune sakratua. Beraz, egoera oso konplikatu, konponbide zaila duen gatazka. Koranaren eta bibliaren irakurketa fundamentalista egiten baitu talde bakoitzak. Hanka motzak dituen su-eten hau ere berehala hautsi dute nahiz eta ez duten horrela adierazi. Palestinar laborari gaz-

te bat hil zuten herenegun.

Asteartean elkartu nintzen Lur Santuan egin behar genuen bidai kideekin; ia denak hegoamerikarrak ziren; guztira 27 ginen. Donostian bizi nintzela jakin zutenean, "qué lindo" esaten zuten gure hiri-buruarengatik. Eta ni pozik nola. Gidaria Judutar gazte bat genuen: sinpatikoa, kultur historikoaz oso jantzia; euskalduna nintzela esan nionean, bazekien gure hizkuntzaren jatorriaren hipotesietako bat, alegia, Georgia aldetik ote datorren.

Asteartean eta asteazkenean Mediterraneo itsasaldeko hiri batzuk bisitatu genituen, besteak beste, Zesarea: arkeologia aldetik gune garrantzitsuenetarikoa bat, Karmelo mendiaren hegoaldean kokatzen da: bere portua antzinatean egindako obrarik egokienetakoa. Haifa da beste hiri garrantzitsua kostari jarraituz: bere portua, hondartzak eta Karmelo monasterioa oso ederrak dira. Bi gau horietan Kibutz bateko hotelean lo egin genuen; kibutz hauek nekazal komunak dira: ekonomikoki autonomoak eta eskubide berdinak dituzte kide guztiek.

Ostegunean Galileako laku

inguruan ibili ginen; Libano eta Jordaniarekin mugatzen du; bertan hankak busti, paraje bikainak gozatu eta Nazaret aldera jo genuen; basilikaren azpian kriptata eta kobazulo dotoreak ikusi genituen.

Ostirala eta larunbata Jerusalem igaro genituen. Israelen zirrara handiena eragin zidan hiria. Bi gune ditu: hiri zaharra eta hiri berria. Hiri zaharra Soliman sultanak eraikitako harresi sendo batek inguratua. Dabiden Dorrean museo bat erakutsi zigiten Jerusalemen historia osoa adierazten duten maketa batzuen bidez. Auhena forma izango da judutarrentzat leku sakratuena; beren arbasoen tenpluaren hondarra da, erlikia bezala; han biltzen dira beren errezoak egiteko. Gu ere sartu ginen gune santu horretan kipa buruan jantzita.

Belenen ere ibili ginen; han ikusi nuen lehen aldiz judutarrek eraiki zuten horma lotsagarria; palestinarrek judutarren lurraldera pasa ez daitezen egin dago. Bi ordu igaro ondoren iritsi ginen tradizionalki Jesusen jaiotzaren txokotzat hartzen den gunera.

Ilgandean Itsaso Hilera joan ginen; paraje aparta. Bertan bai-

natu eta arratsaldean Mashadara igo ginen. Erromatarren aurka altxa zen azken taldeak hantxe borrokatu zuen; alferrik zela konaturatu zirenean nahiago izan zuten beren buruaz beste egin erromatarren esklabo bihurtu baino; 2.000 inguruan suizidatu ziren.

Israelgo egonaldia oso aberasgarria izan da niretzat; izan ere, hainbeste aldiz aipatu eta irakurritudun ebanjelioko testuak "in situ" ezagutzea oso ondo etorri zait. Ikusi ditut egoera sozial oso ezberdinak ere: palestinarrek pobreak eta judutarrak aberatsak. Gidariak esan zigunez, Israelgo arazoa erlijioa da. Hiru erlijioak monoteistak dira, hirurek jainko bera adoratzeko dute, nahiz ezberdin deitu.

Beren arteko arazoa konpon ezinik ez dago: Daniel Barenboim, pianista eta orkestra zuzendari ospetsua, argentinarra jaiotzez baina judutarra jatorriz, gai izan da gazte palestinar eta judutarren artean orkestra bikain bat osatzeko.

Shalom hitzak bakea esan nahi du; horixe opa diet palestinarrei eta judutarrei, justizian eta elkarrenganako errespetuan oinarritutako bakea.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | **Luis Aranalde** | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre

Hekimen sortu da, Euskal Hedabideen Elkarte

Euskarazko hedabideek bizi duten "egoera zailak" bultzatuta, duela urte bi harremanetan jarri ziren euskaraz diharduten hainbat hedabide. Harrez gero, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoa Berritzen programaren laguntzarekin, lanean aritu dira elkarrekin eta elkarte hau da haren fruitu.

"Jakitun gara, bakarka baino elkarrekin hobeto egingo diogula aurre

bizi dugun krisi latzari" adierazi zuten aurreko astean Donostian, hedabideen aurrean egin zuten agerraldian. Iban Arantzabal Goienako zuzendari nagusia da Hekimen elkarreko presidentea, euskarazko hedabide lokalak batzen dituen Tokikom elkartearen izenean. Presidente kargua urtero txandatu da eta zortzi kideko zuzendaritza izango du: Argia, Berria, Euskal Irratiak, Gaur 8, Gazteberri, Hamaika TB, Tokikom



Aurreko astean egin zen aurkezpen ekitaldia Donostian.

eta Xaloe Telebistako ordezkariak.

NOAUA! astekaria Tokikomen bitartez ordezkaturik izango da Hekimen elkartearen.

Adinekoen egoitza eraikitzeko eskaera

Usurbilgo PSE-EEK mozioa aurkeztu zuen joan den astean, azaroaren 27ko plenoan eztabaidatu eta bozkatua izan zedin. Sozialistek adinekoentzako egoitza eraikitzea beharrezkotzat jotzen dute, eta egitasmo honi ahal bezain laster heltzeko eskatzen dio gobernu taldeari. Udalak Foru Aldundiarekin eraikuntza hau planifikatzeko akordioa adostea nahi dute. Osoko bilkurak emandakoa, abenduaren 14ko astekarian jasoko dugu.

Jostailu erabilien azoka antolatu du Hitz Ahok



Abenduaren 15ean egingo da jostailu erabilien azoka.

A benduaren 15ean, Jostailu Erabilien Azokaren seigarren edizioa ospatuko da. Hitz Ahoren ekimen hau aurrera eramateko, ordea, herritarren laguntza behar dute: “zuen etxeetan erabiltzen edo behar ez dituzuen jostailu, ipuin, liburu, DVD eta antzekoak badituzue, orain duzue guzti hauei erabilpen berri bat emateko aukera”, diote ekimen honen sustatzaileek.

Azoka eguna baino lehen, abenduaren 12tik 14ra bitartean, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara Sutegiko erakusketara aretoan izango dira jostailuak jasotzen. “Biltzen dugun guztia abenduaren 15eko azokan ikusgai jarriko dugu”, frontoian, aurreko urteetan bezalaxe.

TRUKEA SUSTATU NAHI DUTE

Truke asmoa sustatzeko helburua ere badu Jostailu Azokak: “azoka egunera hurbiltzen zaretenak, egun horretan etxetik ekartzen dituzuen jostailuak guk

azokan jarritakoekin trukatu ahal izanango dituzue”, argitu dute Hitz Ahokoek. Jostailuei erabilpen berriak ematea eta haurren artean ohitura hori zabaltzea da helburua.

BETEBEHARREKO BALDINTZAK

- Jostailuak osorik egon behar dute. Norberari hartzea gustatuko litzaiokeen moduan.
- Bilketa egunetan jasotzen dena musu-truk emango da. Horren truke, nahi izanez gero, txartel bat jasoko du bakoitzak azoka egunean beste jostailuren bategatik aldatzeko.
- Azoka egunean jostailuak trukatzeko 8 urtetik beherakoek arduradun batekin parte hartu beharko dute.
- DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute.

Azokaren bukaeran geratzen diren jostailuak beharra duten erakundeetara bideratuko dira.

Korrikak laguntzaileak behar ditu

Duela bi aste aurkeztu zen Korrika 18, eta joan den ostiralean, Korrika Laguntzailea kanpaina. Antolatzaileek gogorarazten dutenez, “tamaina honetako kanpaina batek, herriaren eta herritar bakoitzaren laguntza ekonomikoa behar du aurrera egiteko”. Ohi bezala, 12 euroko laguntza ematen duenak, pin-a eta Euskal Herriko 300 komertzio baino gehiagotan beherapenak ahalbidetzen dituen txartela jasoko du. Informazio gehiago, korrika.org atarian. Korrika 18 Andoainen abiatuko da martxoaren 14an, eta hamar egun beranduago amaitu, Baionan.

Anari, igande honetan Gaztetxean

Larunbatean ospatu zen, Itayak antolaturiko Errausketaren Aurkako II. Eguna. Egitarauan, Anariren kontzertua iragarritzen. Baina, “gaixorik zegoela eta, bertan behera geratu zen”. Ekitaldia igande honetara atzeratu dute. Abenduaren 2an bai, Anarik Usurbilgo Gaztetxean emanaldia eskainiko du. Iluntzeko 19:00etan hasita. Gainera, antolatzaileek berri eman dutenez, “beste talde bat izango du lagun oholtzan, Okene Abregoren (BAP, Inoren Ero Ni...) proiektu berria”.



19:00etan hasiko da kontzertua.

Andoni Errazkin

Xukin

igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Zuen

publizitatea

hemen

943 360 321

publizitatea@noaia.com

URDAINTZI

eraikuntzak

649 43 54 75 / 76

943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Nerea Altxu: “Denok dugu zer

Parekidetasun Teknikari eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunarekin izan gara solasean

Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna izan zen, azaroaren 25a. Zoritzarrez halako salaketak eta aldarrikapen egunen beharra bada oraindik, tratatu txar kasuek ez baitute etenik. Nerea Altxu, Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Teknikari eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunaren esanetan, aurten ere zenbait kasu izan dira Usurbilen. Baina kezkagarrienak berretzat, lerrootan azaltzen duenez, ezagutzen ez diren egoerak edota fisikoak baino ugariagoak diren tratatu txar psikologikoen kasuak dira, hain zuzen. Jendarte parekideago bat lortzeko, “denok dugu zer egin eta zer esana” udal teknikariaren hitzetan. Horretarako, martxan jarri dute jada Parekidetasun Kontseilua. Abenduaren 13an bilduko da berriaz, 19:00etan Potxoenean.

2012an tratatu txar egoerarik eman da Usurbilen?

Iturri desberdinetatik jaso ditugu 2012ko datuak. Alde bateatik, Gizarte Zerbitzuetan bi tratatu txar egoeraren berri izan dugu. Emakumeon egoerak, eskura dituzten baliabideetara bideratu dira. Kasu horiek erantzun bat izan dute. Udaltzainek hiru kasuetan parte hartu dute 2012an. Baina Udaltzaingoak 2006an Ertzaintzaren Hernaniko komisaldegiekin



Parekidetasun Kontseilua abenduaren 13an bilduko da Potxoenean.

elkarlanerako hitzarmen bat sinatu zuenez, artatzen dituen kasuak beti Ertzaintzara deribatzen ditu berehala. Hiru kasuetan parte hartu du. Eta gero Hernaniko komisaldegia eman dizkigun datuen arabera, bost kasu izan dira aurten. Horietatik hiruk urrutiratze agindua dute.

Zer esan zenbaki horien inguruan?

Zenbatekoa aparte utzita, kasu horiek egotea jada larria da. Baina isilpean egoera hau jasaten duten emakumeen kopurua zein izan daitekeen pentsatzeak sortzen dit egonezina. Baita gai honen inguruan dagoen inpunitateak ere. Gaur egun ere, gai honi ez zaio be-

har bezalako dimentsio politikoa aitortzen. Oraindik ere eremu pribatuan kokatzen den gai bat da. Euskal Herrian 5 emakume izan dira erailak aurten. Baina iaz EAEn jarri ziren salaketek %33, 32 urtetik beherako emakumeenak ziren. Emakume gazteen artean, kasuak nabarmen ugariatu egin dira eta asko kezkatzen gaitu. Gainera neska gazteei ere kosta egiten zaie Gizarte Zerbitzuetara jotzea, edo laguntza eskatzea. Askotan ez dakite identifikatzen tratatu txar egoera bat bizitzen ari direla eta horrek laguntza eskatzea asko zailtzen du.

Zer egin daiteke, isilpean dauden kasu horiei begira?

Zer esan emakume horiei?

Lehenik eta behin, bizi duten egoera onartezina, barkaezina dela. Beraiek ere askatasunean bizitzeko eskubidea osoa dutela eta horretarako, bakarrik ez bizitzeko bizitzen ari direna. Egia da oso egoera konplexua bizitzen dutela emakumeek, tratatu txar egoera batean daudenean. Emozionalki, fisikoki oso ahulduta daude. Zaila izaten da pauso bat ematea. Baina beti laguntza eska dezatela, eta inguruan ez badute behar bezalako babesik jasotzen, Gizarte Zerbitzuetara jotzeko edo eskura dauden baliabideen informazioa eskatzea emakumeen elkarteei.

Kanpaina askotan, halako ka-

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Otar-Goxo
Elizkargiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Javier Orbegozo
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA
659 602 789
943 37 29 37
Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

r egina eta zer esana"

suak salatzeko mezua helarazi da. Baina egoera hauei aurre egiteko beste baliabide batzuk ere badira?

Beharrezkoa da salaketa egoerak oso larriak direnean, baina gertatzen dena da prozesua oso zaila eta gogorra dela, tratatu txar egoera bizi duen emakumearentzat. Emakumeok bizi duten egoera oso konplexua dela ohartu behar gara. Eta beraiatzat ez dela batere erraza egoera horretatik ateratzea. Lehenengoa, bere segurtasun fisikoa eta emozionala bermatzea da. Horretarako, eskura ditugun inguruko informazioa eska-



dezatela lasaitasun osoz. Eta gerora, pentsatu dezake. Egia da salaketak onura batzuk ekarriko dizkiola, seme-alabak baditu bai izango dituela eskubide murrizketak aitak,

urrutiratze agindu bat jartzerakoan... Baina egia da oinarritzko beharrak asetzeko baliabideak badaudela bere eskura, salaketa bat jarri beharra izan gabe.

Krisi garaian, "tratu txar egoerak handitu egin dira"

Krisialdiari lotuta, tratatu txar egoeren gorakada eman da?

Krisialdiak eskubideen murrizketak, zapalkuntza nabarmen bat ekarri du, batez ere lan eremuan. Orain arte emakumea lan eremuan oso egoera kaxkarrean bizi bazen, oso zapalduta baldin bazegoen, orain are eta gehiago. Esan daiteke, genero rolak indartu egiten direla krisialdi batekin. Eta orduan, emakumeen mendekotasun ekonomikoa askoz prekariora dela. Horren ondorioz ere, tratatu txar egoerak handitu egin dira. Emakume askok ikusten dute bere bikotearekin jarraitu, beste irtenbiderik ez dutela. Honi arreta berezia jarri behar diogu. Gizarte Zer-

bitzuetatik badira laguntza batzuk, emakumeei oinarritzko beharrak asetzeko laguntzak. Are eta gehiago, tratatu txarrak jasotzen dituzten emakumeei zuzendutakoak. Inork ez du halako egoera bat bizi-tzea merezi. Askatasunean bizi-tzea gauza handia da eta hortik irtenbide gehiago topatzea, errazagoa da.

Krisialdiari lotuta oro har, muturreko egoeretan bizi den herritarren aparteko mugimendurik sumatu du-zue?

lazko kopuruekin alderatuta, ikusten da diru laguntzei dagokienez, kopuruak ez duela nabarmen

gora egin. Baina egia da, euskaldunak oro har halako krisialdi edo beharrak bizitzen ditugunean lehenbizi famili eremura jotzen dugu. Asko kostatzen zaigu larrialdi egoera batean gaudela aitortu edo laguntza eske jotzea. Baina gogorarazi herritarrei, Gizarte Zerbitzuetan jaso ditzaketen baliabideak hor daudela, gu hemen gaudela horren inguruko informazioa eta aholkularitza emateko. Beraien eskubide bat ere badela, herritar moduan zerbitzu hauek erabiltzea. Gizarte Zerbitzuetatik kudeatzen ditugun baliabideen inguruko gida bat diseinatzen ari gara, herritarren artean zabaltzeko.

Inguruko paperaz

Zaila ei da tratatu txar egoerak ulertzea eta identifikatzea, batez ere tratatu txar psikologikoak. Oso zailak dira identifikatzen, ez dira ikusten. Baina badaude, ingurukoak alarma gorrian jarri behar gaituzten adierazle batzuk; emakume batek osasun arazoak baditu, antsietatea, depresioa, elikadurarekin arazoak, estresa, ile erorketa, isolatzeko joera badu, autoestimaz indargabetua dagoela... "Alde horretatik, ingurukoek jakin behar dute, oso egoera konplexuak direla, emakumearen autonomia eta autoestima oso ahulduta daude halako egoeretan. Eta hortaz, aholkatuko nieke lehen-dabiziko gauza dela emakumearen aldamenean egotea, laguntza eskatzen dutenean hor egotea, eta ahal dela, epaiketak alde batera uztea. Laguntza jasotzeko eskura dituen baliabideen berri eman eta horiek jasotzera animatzea", adierazi digu Nerea Altxu udal teknikariak.

Tratu txar egoeretan, laguntzarako...

■ **Gizarte Zerbitzuak:** 943 377 110.

■ **Udaltzaingoa:** 943 361 112.

■ **Ertzaintza:** 943 538 840.

■ **Tratu txar edo sexu erasoak** jasandako emakumeei laguntzeko telefonoa: 900 840 111 edo 016.

■ **Gizarte larrialdietarako foru zerbitzua** (24 orduz): 943 22 44 11 edo 112.

(NOAUA)ko Telefono Interesgarrietan ere topatuko duzue zenbakia, 17 or).

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAGUSIA 10- etzekoaldea
943 372 795

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

“Tipi-Tapa”, pintxo jatera igandean

Herriko tabernariak prestaturiko pintxo goxoak, fundamentuzko edari batekin lagunduta merke asko dasta ditzakezue igande honetan, 2 eurotan. Eta hori gutxi balitz, sabela pozteko egiten duzuen saiakeragatik bakarrik, 300 euroko erosketa-bale baten zozketan parte har dezakezue. Proposamen erakargarri hau, Hurbilago Usurbilgo Merkataria eta Ostalarien Elkartek egin du, estreinakoz, igande honetarako, abenduaren 2rako.

Apuntatu ongi, “Tipi-Tapa” izena jarri diote, ekainera bitarte, hilero lehen igandetan Usurbilgo Kaxkoan ospatuko den ekimen berri honi. Apropos hautatu dute izena, batetik, herritarrek osatu beharko duten ibilbide gastronomikoari egiten baitio erreferentzia, eta bestetik noski, ibilbide horretan dastatu ahal izango diren zizka-mizkei.

Iragan ostiralean aurkeztu zuten ekimena, Atxega jauregian. Argazkian dituzue, ekimen berri honekin bat egin duten bost tabernetako langileak; Txiriboga, Aitzaga, Bordatxo, Artzabal eta Txapeldun tabernetakoak hain zuzen.

ZOZKETARAKO, IBILBIDEA OSATU BEHAR

Igande goiz eta eguerdi parte honetan, bost taberna hauetara gerturatzen denak, pintxo bereziak dastatzeko aukera izango du. Ekimenaren inguruan bildu diren tabernariak pintxo berezi hauetako osagai nagusia zein izango den erabakitzeke ere ados jarri dira. Abenduaren 2an, bakailaoarekin eginiko pintxo eder askoak dastatu ahal izango dira bost edaritegiotan. Prestatu asmo duten pintxoaren menua aurreratu digute Hurbilagotik: “bakailaoa ajoarriero erara, pil-pilean, frijitua piper berdeekin, bakailao-bolak edo albondigak, bakailao eta zapo-masailak klub rano erara...”. Pintxoak dastatu nahi duenak soilik, 1,50 euro ordaindu beharko du. 2 eurotan aldiz, mokadutxoak eta urteko ardoa (zuria, gorria ala beltza), txakolina edo sagardoa edan ahal izango du.

“Tipi-Tapa” ekimenaren baitan zozketa ere izango da. Bertan parte hartzeko, Hurbilagotik berri eman dutenez, herri-



Ekainera arte luzatu asmoa dute ekimen hau.

tar bakoitzak “eginbehar bat baino ez du izango: norberak bere “Tipi-Tapa txartela” eskuratu (taberna guztietan egongo da eskuragarri) eta, pintxoak probatu ostean, taberna horren zigilua biltzea. Aipatutako bost taberna horietan aurkituko dituzue “Tipi-Tapa txartelak uzteko kutxatxoak ere”.

300 EUROKO EROSKETA BALEA, BI HILEAN BEHIN

300 euroko erosketa balea zozketatuko da bi hilean behin, Hurbilago Elkarteko saltoki eta jatetxeetan gastatu ahal izango dena. Lehenengoa, igande honetan bertan. Zozketa honetan parte hartzeko ordea, argi izan, bost tabernetako zigiluak beharko dira. Hau da, bost taberna hauetan pintxo bana dastatu beharko da. Edo beste modu batean esanda, “Tipi-Tapa”ko ibilbide osoa egin beharko da. Igande honetakoa, 14:30ak baino lehenago gainera. Ordu horretarako iragarri baitu Hurbilago Elkartek, ekimen berri honetako lehen erosketa balearen zozketa. Txapeldun tabernan egingo da.

Hurrengo zozketak, errotazioz, ekimen honekin bat egin duten beste tabernetan.

JARRAIPENA IZANGO DU

Zozketan parte hartzeko, ez dago zertan egun bakar batean bost tabernetako pintxoak dastatu beharrik. Adibidez, hiru tabernetako pintxo bereziak dastatu eta txartelean hiru zigilu dituenak, hurrengo “Tipi-Tapa” hitzordura arte itxaron beharko du, gelditzen zaizkion beste bi zi-

giluak lortu eta zozketan parte hartzeko.

Igande honetan herriko bost tabernek abiatuko duten egitasmoak jarraipena izango du 2013. urtean zehar. Ekainera arte luzatu asmo dute, hilean behin, lehen igandetan ospatuko den ekimen hau. Estreinako hitzordurako, produktu nagusi gisa pintxoak prestatzeko bakailaoa hautatu dute tabernariak. Baina Hurbilagotik ohartarazi dutenez, “garaian garaiko produktu ezberdinekin prestatutako mokadu goxoak ahoratzeko aukera izango da datozen hilabeteotan. Olagarroa, hegaluzea, antxoa, txerria, ilarak, orburuak, onddoak... Zer izango ote da hurrena?”. Deskurritzea, herritarren esku egongo da.

Lehen hitzordua, igandean

- **Taberna parte hartzaileak:** Txiriboga, Aitzaga, Bordatxo, Artzabal eta Txapeldun.
- **Pintxoak egiteko aukeraturiko produktua: bakailaoa.**
- **Parte hartzea:** “Tipi-Tapa Txartela” eskuratu, bost tabernetako pintxoak dastatzearen truke txartelean zigiluak lortu. Bost zigiluak lortuta, txartela tabernetako kutxatxoren batean utzi.
- **Prezioa:** pintxo bakoitza eta edaria, 2 eurotan (pintxoak bakarrik, 1,5 euro).
- **Zozketa:** 14:30ean, Txapeldun tabernan. Hurrengo zozketak: otsailak 3, apirilak 7 eta ekainak 2.

Antolatzailea: Hurbilago Usurbilgo Merkataria eta Ostalarien Elkartek.

300dik gora ekitaldi Durangoko Azokan

Bost egun beharrean, lau iraungo du Durangoko 47. Liburu eta Disko Azokak, baina aurkezpen ekitaldian nabarmendu zutenez, “inoizko egitaraurik zabalena izango du”: 300dik gora ekitaldi izango dira azokaren barruko guneetan.

Gerediaga elkartearen Nerea Mujika eta Aiert Goenaga ordezkariak eman zuten aurtengo azokaren ardatz nagusien berri. Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzaren kultura sailburua eta Miren Dobaran Bizkaiko Aldundiko euskararen sustapenerako arduraduna, eta Aitziber Irigoras Durangoko alkatea ere egon ziren prentsaurrekoan.

Ijitoen kultura izango da aurten Durangoko 47. Liburu eta Disko azokan kultura gonbidatua. Besteak beste, flamenkoa, txalaparta eta bertsoak uztartuko dituen ikuskizuna prestatzen dabilta. Abenduaren 7an eskainiko dute, Plateruenean.



Babesleekin batera aurkeztu zuen Gerediaga elkarteak aurtengo azoka.

GUNE BERRIAK SENDOTU

Durangoko Azokaren gune berriak “fin-katu eta indartzea” izango da antolatzaileen helburu nagusia, eta horren adibide da disziplina berriei leku egiteko iaz sorturiko Irudienea, Szenatokia, edota

K@bia guneak. Aurreratu dutenez, 88 emanaldi izango dira aurten Ahotsenea gunean.

Aurten, gainera, Plateruena kafe antzokiko emanaldiak Durangoko Azokaren egitarau ofizialaren parte izango dira.

47. DURANGOKO EUSKAL
LIBURU ETA DISKO AZOKA
2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

ANTOLATZAILAK: KULTURA GONBIDATUA: BABESLE NAGUSIA: BABESLE PUBLIKOAK: BABESLE PRIBATUAK: KOMUNITARIOAK:

ANTOLATZAILAK: KULTURA GONBIDATUA: BABESLE NAGUSIA: BABESLE PUBLIKOAK: BABESLE PRIBATUAK: KOMUNITARIOAK:

ANTOLATZAILAK: KULTURA GONBIDATUA: BABESLE NAGUSIA: BABESLE PUBLIKOAK: BABESLE PRIBATUAK: KOMUNITARIOAK:

Ehunka produktu eskura euskaraz irakurri, jolastu eta abesteko

Euskarazko Produktuen Katalogoa 2012-2013, paperean eta sarean eskuragarri

Opariak egiteko garai aproposa dela aprobetxatuz, Euskarazko Produktuen Katalogoa banatu berri du Udalak. Bertan bildu dituzte merkatuan dauden produktu berrienak eta egokienak, 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat: musika, liburuak, jolas eta jokoak... Eta nahi duenak produktu guztien berri ere izan dezake 'www.katalogoa.org' helbidean. Urte osoan, gainera!



Jolas eta joko ugari jasotzen ditu Euskarazko Produktuen Katalogoak.

Xabierrentzat Azken garaipena komikia eta Hiru gutun Iruñetik liburua, Mairerrentzat Betagarriren azken diskoa eta Gaur zortzi liburua, Perurentzat Pirritx, Porrotx eta Marimototsen puzzle erraldoia eta etxeko guztiontzat Mihiluze mahai jokoa. Gaur egun, erraza da gero Gabonetako opariak aukeratzea! Izan ere, Euskarazko Produktuen Katalogoak ehunka produktu jartzen ditu eskura 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzako, eta baita gurasoentzako ere.

Euskal Herriko 200dik gora udal eta mankomunitatek osatu dute Katalogoa, tartean Bu-

"Euskal Herri osoan 140.000 ale banatzen dira, Buruntzaldean 9.000 mila ale"

runtzaldeko 6 herriek. Urtero bezala, merkatuan dauden produktuen artean hautaketa egin dute, beritasuna, egokitasuna eta kulturalitatea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan sailkatuta jaso dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait ataletan adinaren arabera banaketa egiten da.

Katalogoa bi euskarri ezberdinetan zabaltzen da. Alde batetik, paperezko edizioa dago, etxeetan eta ikastetxeetan banatu berri dena.

INTERNETEKO EDIZIOA, ASKOZ ERE ZABALAGOA

www.katalogoa.org helbidean, interneteko edizioa dago. Interneteko gune horretan, paperezko katalogo osoa ikus daiteke, eta horrez gain, paperezkoan sartu ez diren produktu gehiago ere azaltzen dira. Aukera dago, gainera, produktuetara edo argitaletxeetara zuzenean joateko loturak ere ematen baititu. Eta nahi izanez gero, begiz jotako pro-

duktuak eros daitezke etxetik.

Urte osoan bizirik eta eguneratua dagoen gunea da www.katalogoa.org, argitaletxeek aukera baitute produktu berriak zuzenean sartzeko merkaturatu ahala eta deskatalogatuak gelditu direnak kentzeko. Hori horrela, webgunea urte osoan kontsulta daiteke eta irakurleek beren komentarioak egiteko aukera dute bertan, irakurri, ikusi, entzun edota jostatzeko aukeratu duten produktuaren inguruan.

INTERESGARRIA ETA BALIAGARRIA

1998 urtean argitaratu zen lehenengo aldiz Euskarazko Produktuen Katalogoa. Nafarroako udal gutxi batzuek abiatu zuten ekimena. Aurten 15garren edizioa argitaratu da eta hainbeste urteko elkarlanaren emaitzak zehaztasun gehiagorekin ezagutzeko, azterlan bat egin dute Aztiker enpresaren laguntzarekin. Azterlan horretan bildu diren datuen arabera, Katalogoa eraginkorra da. Inkestatutako herritarrek orokorrean azaldu dute Katalogoa interesgarria eta baliagarria dela.

Liburuak eta jokoak, gehien erosten direnak

Katalogoa banatzeak edo ez banatzeak izan dezake eraginik salmentan?

Bi herri konparatu dira: Arrasate eta Eibar. Azterketa xume batek eman ditzakeen ondorioak direla ahaztu gabe, datuen arabera, esan daiteke Katalogoaren moduko produktuak herrian zabaltzeak baduela eraginik euskarazko produktuen kontsumoan. Arrasaten %45ek eus-

karazko produktuak erosten ditu; Eibarren %28k.

Katalogoa ezagutzen dutenen artean %88k adierazi du irakurri edo begiratu duela eta %72k, berriz, produktuen bat erosteko erabili duela. Ezagutzen dutena, batez ere, paperezko euskarria da.

Katalogoa ezagutzen dutenen %85ak adierazi du bertako pro-

duktuak interesgarriak eta kalitatezkoak direla eta Katalogoari (paperezkoa nahiz Internetekoa) 7tik gorako puntuazioa eman diote, 10en gainean.

Euskarazko produktuak, batez ere, **denda txiki eta ertainetan** erosten dituztela diote gurasoek. Erdiek adierazi dute, sekula ez dutela horrelakorik erosi azalera handietan.

oparitu euskaraz!

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA 2012-2013



Egin klik klik

www.katalogoa.org

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria,

Urnieta eta Usurbilgo Euskarako Batzordeak

Gauzak ondo bidean, abenduaren 3an egingo zaio harrera Ramon Uriberi

Beste hamabi lagunekin batera izan zen atxilotua 1994an, ETArekin talde legal bateko kide izatearen akusaziopean. 18 urtetik gorako espetxe zigorra bete du eta, azken orduko gorabeherarik ez bada, abenduaren 3an kalean behar luke izan. Hala bada, egun horretan bertan arratsaldeko 19:30ean egingo zaio harrera Ostapen.

1994ko ekainaren 5ean atxilotu zuen Guardia Zibilak bere tabernan. Donostiako kuartelean zein Madrilgoan izan zen bitartean, jasan zituen tratatu txarrak salatu zituen. Auzitegi Nazionalera eramaterakoan ere tratatu txarrak pairatu zituela salatu zuen. Honen guztiak, besteren artean, sekulako buruko minak eta buruaren atzealdean handitua izatea eragin zizkion. Tratatu txarreatik salaketa jarri zen baina

artxibatu egin zuten.

Topasen (Salamanca) dago preso gaur egun. Ostapen egingo zaio harrera, abenduaren 3an, arratsaldeko 19:30ean.

Espetxeak

- **Carabanchel** 1994ko ekainaren 9tik (egun batzuk) 1995eko maiatzaren 20ra (diligentziak).
- **Ocaña** 1994ko uztailaren 18an, bi urte.
- **Valdemoro** (diligentzia judizialak - 1995-10-31 / 1996-4-16 / 1996-10-2 / 1997-1-30).
- **Segovia** 1996ko urriaren 16tik, 3 urte.
- **Dueñas (Palencia)** 1999ko irailaren 14tik 2000ko uztailaren 5era.
- **Langraitz** 2000ko uztailaren 7tik 2009ko urrira.
- **Topas (Salamanca)** 2009ko urriaren 20tik.



Ramon Uribe, duela urte batzuk espetxean egindako argazki batean.

Ederki bizi dira (gizonezko) batzuk, beste (emakumezko) batzuen kontura! Zainketa duinak guztiontzat: gizon nahiz emakumeontzat.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Foru Plana

Elkartasun astea, Eperra ikastolaren alde



Abenduaren 5ean, Xora filma eskainiko dute Sutegin.

Abendua heltzearekin batera, Zuberoan kokaturiko Eperra ikastola laguntzeko elkartasun ekimenak antolatu ditu Nafartarrak taldeak. Batetik, hango produktuekin osaturiko gabonetako otarrak erosteko aukera dago. Eta bestalde, datorren asterako, Zuberoarekin loturiko bi ekitaldiz gozatu ahal izango da Sutegin. Mugen gainetik, aipatu ikastola laguntzeko deia egin dute Nafartarrak taldekoek.

ABENDUAK 5, ASTEAZKENA "XORA" FILMA

Zubereraz grabaturiko lehen filma dugu, "Xora". Joan den maiatzean estreinatu zen zinemetan. Eta orain, Nafartarrak taldekoen eskutik, Sutegin proiektatuko da, abenduaren 5ean Sutegin. 22:00. Sarrera: 5 euro.

ABENDUAK 8, LARUNBATA BERTSO ETA KANTU JAIALDIA

Aurpegi ezagunak bertsotan, eta xubertarrak abesti herrikoia kantatzen. Bi osagaiokin, bertso eta kantu jaialdia antolatu dute Nafartarrek, abenduaren 8rako Sutegin, 19:30ean. Sarrera: 10 euro. 5 euro gazteek eta langabetuek.

Bertsolariak: Igor Elortza eta Julio Soto. Kantaldia: Jean Bordaxar, Robert Larrandaburu, Jean Pierre Luro, Jean Noël Pingue.

GABONETAKO OTARRAK

Produktuok ikastolan inplikatuak dauden gurasoek ekoiztiak dira. Otarrak eskuratzeke, Txiribogan, Bordatxon edota NOAUA!ko egoitzan eman daiteke izena abenduaren 5a baino lehen. Antolakuntzak, otarrak abenduaren 14rako eskuratzea espero dute, eta eskaera egin dutenek honenbestez, gabonen aurretik jaso ahal izango dituzte. Nafartarrak taldekoek gogorarazi dutenez, iaz 5.434 euroko laguntza bildu zen Usurbilen. Hona hemen, Eperra ikastola laguntzeko aukeran dauden bi otar motak:

Ahuski otarrea. Prezioa: 37 euro

Ardi gazta (1kg), ezti (500 gr), ahate gibelarekin eginiko pate (200 gr), bizkotxo poltsa bat "artisanala" (200 gr).

Irati otarrea. Prezioa: 50 euro

Ardi gazta (1 kg), ahate gibelarekin eginiko pate (200 gr), bizkotxo poltsa bat "artisanala" (200 gr) eta axoa txahalki xehatua saltsan (750 gr).

Hezkuntzako parte hartze prozesua

Etorkizunerako Usurbilgo hezkuntza eredu bateratua adosteko, Usurbilgo Udalak antolatu duen parte hartze prozesuko bigarren faseari loturiko hurrengo bi bilerak abenduan burutuko dira; hilaren 5ean lehenengoa, eta hilaren 19an bigarrena. Bi saioak, iluntzeko 18:30etarako deitu dituzte Potxoenean. Lehen fasean eginiko egungo egoeraren diagnosian "identifikatutako interes edo beharrei irtenbidea aurkitzeko aukera ezberdinen lanketa" egingo da abenduko bi hitzorduotan.

"Euskaraz bizi nahi dugu" manifestazioa

"Euskaraz bizi nahi dugu" aldarripean manifestazioa deitu dute abenduko lehen egunerako. Larunbat arratsaldeko 17:00etan abiatuko da Donostiako Anoeta futbol zelai paretik.

Santo Tomas azokan parte hartzeko garaia

Abenduaren 16an ospatuko da Usurbilgo Santo Tomas Azoka. Irekia dago egun horretan ospatu ohi diren sagardo eta babarrun lehiaketetan izen emateko epea. Babarruna eta sagardoa NOAUA!ra ekarri behar da eta bertan izena eman: azaroaren 26tik azaroaren 30era eta abenduaren 10etik 13ra (lau datak barne).

Lasarte-Usurbil BHI Institutuaren oharra

2010-2011n Batxilergoko ikasketak amaitu zituzten ikasleek titulua eskuragarri dute ikastetxearen idazkaritzan.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Parte hartzeak gorantz, Erle Egunean

Hamaulaugarren edizio honek ohikoa baino jende gehiago erakarri du, eta ez hori bakarrik, plaza ingurura gerturatu denak, inoizko postu kopuru handiena aurkitu du. Oraingoan gainera, ezohiko protagonista izan du Erle Egunak; bertako erlea akabatzen ari den liztor asiarra.

Plaza ingurutik osteratxoa eman besterik ez zegoen igande, zegoen giroan murgiltzeko. Gozogintza, eta ezta osagai nagusi dituzten hainbat produktu erosteko aukera egon zen. Tarte, Udarregi Ikastolako ikasleak ere han ziren, eurek eginiko postreak saltzen. Baita BERRIAkoak ere, hain justu, erlauntzaren irudia protagonista izan eta lagun berriak lortzeko abian duten ziztada kanpainarekin. Mokadutxoa dastatu nahi zutenak, Dema plazatik Askatasuna plazarako pasabidean talogileak zituen. Eta han eta hemen, Salto eta Brinko pailazak zebiltzan, urdaiazpiko eder bat zozketatzen.

Sutegira gerturatzeko ere bazen aitzakiarik. Batetik erakusketa aretoan, Erle Egunerako haur eta gaztetxoaren artean antolatu den marrazki lehiaketako lanak ikusgai jarri zituzten. Eta auditoriora jaisteko sarreran berriz, azken al-



Argazkian, aurten sarituak izan diren ezti-egileak.

dian kaltea baino eragin ez duen liztor asiarrari buruzko erreportajea eskaintzen aritu ziren, telebista baten bidez. Pilotalekuan gainera, liztor asiarraren kabi "erraldoi" bat ikusteko aukera zegoen, baita Erle Egunari loturiko informazio panelak ere.

ERLE KATALANA

Frontoia izan zen hain zuzen, azaroaren 25eko ospakizunen azken minutuetan, arreta gune nagusia. Bertan banatu ziren, urtero moduan, Erle Egunaren testuinguruan antolaturiko hiru lehiaketetako sariak; marrazki, gozogintza eta ezti txapelketako sariak hain zuzen. Aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere, erle bat izan zen Elizako kanpandoretik frontoira sariak ekartzeaz ar-

duratu zena. Hori bai, aurtengo erleak itxura berezia zuen. "Senyera"ren (Herrialde Katalanetako banderaren) kolore hori gorri margotua baitzegoen, sariketarako baliatu zuten erlea. Modu horretan gogoan izan zuten, egun berean Herrialde Katalanetan ospatu zuten hauteskunde egun historikoa.

EZTI TXAPELKETA Iluna:

- 1-Joxe Anjel Urkia (Oñati).
- 2-Ramon Geregí (Nafarroa).

Argia:

- 1-Federico Villafranca (Gares).
- 2-Miren Lizasoain (Bera).

Milalore:

- 1-Igor Merino (Barakaldo).
- 2-Patxi Telleria (Idiazabal).

GOZOGINTZA LEHIAKETA

- 1-Dolores Borda.
- 2-Arantxa Zubieta.

MARRAZKI LEHIAKETA

- 2 urte: Alaitz Alzas.
- 3 urte: Lier Barrenetxea.
- 4 urte: Aloña Otxotorena.
- 5 urte: Mikel Roura.
- 6 urte: Arantxa Obama.
- 7 urte: Alex Fernandorena.
- 8 urte: Goiatz Arriaga.
- 9 urte: Aitor M.
- 10 urte: Mario Rodriguez.
- 11 urte: Nahikari Etxeberria.

ENKANTEA

Iñaki Gorrotxategik eraman zituen ezti poto sarituak, 1.900 euroren truke. Tolosako bere museoan erakusgai jarriko du.

Ostiralean "Leterekin Kantu Berbetan", Jon Sarasuaren eskutik

NOAU! Kultur Elkartearen Kulturaldia amaitzeko beste ekitaldi bat geratzen zaigu oraindik. Ostiral honetarako, Kantu Taldekoekin batera antolatua duguna Sutegin; Jon Sarasuaren "Leterekin Kantu Berbetan" hitzaldi emanaldia. "Emanaldia kantaldiaren eta hitzaldiaren hibrido

bat da, kantaldia mintzatua edo hitzaldi kantatua: Xabier Leteren hamar bat kanta kantatuko ditugu, eta horren inguruan artista honi buruzko interpretazio pertsonal bat egin. Emanaldi xumea da, sofistikazio gutxikoa. Bide batez, belaunaldi progresistari buruz, herriaren bilakaerari buruz, espiri-

tualitateari buruz, artistaren jarra eta askatasunari buruz... hainbat gairi buruzko gogoetak tartekatzen dira, beti ere Xabier Leteren ibilbidearen inguruan. Kantak gitarrak eta pianoz lagunduak dartzat, eta bukaera aldera kanta bat entzuleekin batera kantatu ohi dugu". Ekitaldirako sarrera, doan.



Sutegin izango da saioa, 19:30ean.

Bidean, aginagarren bilgune berria

Eliza zaharra auzolanean eraberritzea izango da, Bidean Agiñarron Herri Elkarte berriak esku artean duen lehen egitasmo potoloa. Bilgunearen sorreraz eta ekimen honi buruz hitz egin dugu eurekin.

Aginagarren elkarte, Aginagarako sortua duzue Bidean? Bidean berez elkarte bezala lanabes bat da. Gure helburua, Aginagan zeuden eragile desberdinak, jendea biltzea zen asmoa, denoi eragiten zizkiguten gaiak denon artean erabakitzeko eta bai udaletxearen edo beste edozein eragileren aurrean nolabaiteko iritzia bakarrarekin joateko. Bakoitza bere aldetik zebilela ikusten genuen eta.

Nola izan da elkarte berri honen eratze prozesua?

Iaz Jai Batzordeko eta handik kanpoko gazte taldea bildu ginen. Aginagan arazo desberdin batzuk ikusten genituen. Astero biltzen hasi ginen zer egin genezakeen ikusteko. Ikusten genituen arazoeekin, txosten bat osatu eta apirilean aurkeztu genuen. 30 bat lagun bildu ginen. Orduan erabaki genuen herri batzarra sortzea. Horixe izan zen nolabait, Bidean elkartearen sorrera. Batzar horren ostean, San Praixku Guraso Elkartearekin eta



Argazkian, Bidean elkartearen sustatzen ari diren hainbat kide.

HELBURUA

“Aginagan dauden eragileak, jendea biltzea da asmoa”

Antxomolantxa Elkartearekin bildu ginen.

Auzolana duzue bilgunearen ezaugarrietako bat, ezta?

Badakigu denon lehentasunetako bat ez dela izango Eliza zaharra konpontzea, baina Aginagarentzat ondare historikoa, altxor bat dela iruditzen zaigu eta berriro beharra dagoela, erabilpen anitz bat emateko. Arranpa bat egiteko asmoa dago, gurgildun aulkian daudenentzat. Bai eliza eta kanpoko arranpa auzolanean egingo dira.

Bestalde, parke berri baten alde borrokatzeko asmoa dugu, eskola handitu ahala, eskola bera eta egungo parkea

txikia gelditu direla iruditzen baitzaigu.

Zer ekarpen egin dezakete aginagarrek Bidean-en?

Zerbait eskatu edo esan nahi badute, beraien tokia izango dute herri batzar honetan. Bestela, gurekin hartu emanetan jar daitezela. Ahalik eta eragile eta herritar gehien bildu nahi dugu. Aginagarren artean komunikazio dezente bat ematea, herriak ahalik eta baliabide gehien izatea, eta daudenak onak izatea nahi dugu. Animatu parte hartzera.

IKASTAROA IGANDEAN

Aginagako Eliza Zaharra auzolanean eraberritu asmo dute. Beharrezko segurtasun neurriekin aritzeko, prestakuntza ikastaro bat antolatu dute igande honetarako, abenduak 2, 16:00etan Aginagako ludotekan. Parte hartzera animatzen dute Bidean-etik. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiete “Udalari, ekonomikoki konpontzerik izango ez duen arren, laguntza bat jarri duelako prebentzio ikastaro hau eta materiala jartzen. Eta herritarrez aparte, Jose Mari eta Unai Larbururi (Larburu Garraioak) eta Felix Aranguren (Hiruar-kaitz eraikuntzak) doan utziko duelako materiala eta berak muntatuko duelako aldamioa”.

Futbol partidak

Mutilak Futbol 8 Udarregi 5

Alebin Mutilak Futbol 8 Udarregi 6A

Alebin Mutilak Futbol 8 Udarregi 6B

Alebin federatua

Alebinak futbol eskola

Infantil neskak F-8 Larunbata, 11:45

Infantil mutilak F-8

Infantila mutilak F-11 Larunbata, 10:00
Kadete F-11

Kadete areto futbola Larunbata, 12:30

Jubentila; Larunbata, 15:30
Regionala, Neskak

Josu Bereziartua,

Mendi Astean

Oria ibaia hizpide zuen Andatza Mendizale Elkartekoek antolatutako II. Argazki Txapelketako sarituak nortzuk diren, ostegun iluntze honetan emango dute jakitera, egunotan ospatzen ari diren Mendi Astearen baitan. Zikloa amaitzeaz da. Hauek dira, burutzeke dauden ekitaldiak:

Azaroak 29, osteguna

19:00 Suteagin: Josu Bereziartuaren Broad Peak 2010 hastapenetara itzulera eta “Oria ibaia Usurbilen” gaitzat duen II. Argazki lehiaketaren sari-banaketa eta luntxa. Ekitaldia hasi aurretik, Mendiko Asegurua egiteko aukera.

Abenduak 1, larunbata

08:00 Mendi ibilaldia eta ondoren, Patrin bazkaria.

Abenduaren 3an, kiroldegia goizez irekiko da bakarrik

Abenduaren 3an jai egingo dute Oiardon, igande eta jai egunetako ordutegia izango dute beraz; 9:00-13:30. Abenduaren 6an, aldiz, ohiko lan ordutegia: 7:00-22:00.

Gipuzkoako Txapelketako partidak

Eskuz banaka alebinak 2. urtekoak
USURBIL 2-EPLE
(Aimar Iruretagoiena)

Eskuz banaka alebinak 2. urtekoak
USURBIL 3 - AÑORGA 5
(Jon Zumeta)

Eskuz banaka infantilak 1. urtekoak
USURBIL - AÑORGA 2
(Aitor Aranguren)

Paleta goma gizonezkoak 3. maila
USURBIL 2 - ALTZATARRA 2
(Josu Arruti - Imanol Esnaola)

Paleta goma gizonezkoak 3. maila
USURBIL 1 - ALTZATARRA 1
(Mikel Lizardi - Iban Arruti)

Partida guztiak Aginagako frontoian, azaroaren 30ean ostirala, 18:00etan.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 eurotan, orain 216.000 eurotan!!! 662 056 899

75 metroko etxebizitza salgai Kalezarren. Pisu oso eguzkitsua, guztiz kanpoaldera ematen du, 2 logela, komuna, sukalde amerikarra, egongela eta balkoia plazara. Amueblatua eta berri-tua. Garajea aukeran. Tel 686462705

Pisua salgai Txaramunton. Berria, bi logela, egongela, terraza ikusgarria. Trastero handia. 276.000 euro. 615 720 245.

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 180.000 euro. 943370957.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egin-na. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Mer-kea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solai-ruko borda dena 3.000 m lur sai-lean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ede-rrekin. Trastero eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela eraba-kiko balitz, NOAUAko erredakzio batzordeak ohar hori argi-taratut gabe utziko luke.

11n. 4. pisua. Kanpoaldera ema-ten du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komu-na, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 237.000 euro.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro traste-roa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Usurbilgo kaxkoan etxe bat alokatzen da, 3 gela, sukaldea, komuna, egongela, trastero eta igogailuarekin. 943 37 14 95 - 695 76 78 21 - 657 71 13 35

75 metroko etxebizitza alokai-ruan Kalezarren. Pisu oso eguz-kitsua, guztiz kanpoaldera ema-ten du, 2 logela, komuna, sukal-de amerikarra, egongela eta bal-koia plazara. Amueblatua eta berritua. 750 euro. Tel 686462705

Pisua edo pisuko gelak aloka-tzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usur-bilgo pisu berri-ru batean. 657 700 408

Muna Lurran bigarren solairuan dagoen pisu bat. Oraintxe sar-tzeko prest. 3 logela, sala, sukal-dea, komuna eta balkoia. Amue-blata. 650 919 065

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratztea egiteko aukera. 665 720 913.

Alokairuan atiko berria Usurbi-len. 2 terraza handikoa. Altxai-ru berriz hornitua. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argi-tasun handikoa. 67 7471 648.

Pisua alokatzen da Txaramun-ton kalean: 3 gela, sukaldea, bi komun, sala. Garajea aukeran. Abala eskatuko da. 656757073.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Logela bat alokatzen da Usur-bilgo erdigunean. 667740266.

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokai-ru konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza aloka-tzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terra-za eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

MOTORRA**salmenta,****garajeak**

Lokal bat alokatzen da Atxegal-den. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunton kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

1999. urteko Ford Mondeo fami-liarra salgai, 1.500 eurotan. Ego-era onean. 652 706 518

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegal-den. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Scooter bat salgai, 450 euro. Ego-era onean. 678 603 659.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Neska euskalduna behar da ile-apaindegi baterako. Esperien-tziaduna, ostegunetatik larun-batetara lan egiteko. 635 20 48 16

Lan eskaerak

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-duna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guz-tietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrek emateko zein haur-rak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase parti-kularrek emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar eus-kaldun bat, haurrak zaindu edo-ta klase partikularrek emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientzia-duna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

Neska arduratsua garbiketara lane-tan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzetan laguntzeko,

**Zorionak Elur!**

Dagoeneko 8 urte bete dituzu. Txapeldun babarrun!!

**Zorionak aita txo!**

Txutxe batzuk erosiko dizkiguzu, ezta? Ondo pasa eta muxu potolo potoloak. Maite zaitugu.

**Zorionak Gorka!**

Azaroaren 30ean zazpi urte beteko dituzu. Ondo pasa Imanol, Nikole, Martina eta Ximunen partez.



Geldiro haziko zara mara- mara, sagarrondo xume..." **Zorionak**

Uxue! 5 urte, Aitatzok eta Amatxok.



Zorionak Ana! 5 urte betetzen dituzu azaroaren 30ean. Zorionak

aitatzok, amatxok eta Hugoren partez. Ondo pasa!



Zorionak Nora! Prest al zaude kandela guztiak itzaltzeko? Orduan... zure irrifarre politena

atera eta festa hasi dadila mariajesus! Muxuak.



Zorionak Amets! 10 urte beteko dituzu abenduaren 9an. Zorionak

aita eta amaren partetik! Ondo pasa!

morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Espientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko.

662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomaturia. Badut esperientzia. 652712099.

BESTELAKOAK

Txamorra eta jertse bat galdu dira Atxegalden. Udarregiraigo eta jertseko eskailera ondoan. Aurkitu badituzu deitu 660 779 160

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. (Etxera eramaten da). 667 232 300

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko palatxiki bat galdu genuen herriko

frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Larru itxura duen txaketa beltz bat aurkitu dugu Aginagako frontoian. Norbaitek galdu badu, udaltzainetatik pasa bila.

Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Usurbilen, Heat markakoak (berri berriak) eta metaluzko fundarekin (beltz kolorekoak). Norbaitek aurkitu baditu udaltzaingoa utzi edo telefono mezua bidaltzea eskertuko

nuke (675 703 276).

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Hainbat produktu erabili gabeak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurreak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Taxia (Angel).....	607 928 770
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Eusko Tren.....	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Anbulategia.....	943 362 013
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Oa botika.....	943 376 076
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Iturralde botika.....	943 363 395
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	DYA.....	943 464 622
Haur Eskola.....	943 374 061	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Emergentziak.....	112
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Gonzalez Ehorzetxea.....	943 362 163
KZgunea.....	943 023 684	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Popular Español.....	943 370 411
Etumeta AEK Euskaltegia.....	607 609 379	BBVA.....	943 377 155
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Telefonica.....	1004
Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak azaroaren 29tik abenduaren 9ra

Osteguna	29	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala	30	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
Larunbata	1	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea	2	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astlehena	3	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astearte	4	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorb. 6. Lasarte
Asteazkena	5	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte

Osteguna	6	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala	7	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata	8	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorb. 6. Lasarte
Igandea	9	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorb. 6. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE. Elkano kalea 9, behe. Hernani. Tel.: 943 552 087
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Agenda azaroa / abendua

30 ostirala

■ **Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

1 larunbata

■ **Mendi ibilaldia** Andatzako lokaletik abiatuta, goizeko 8:00etan.

2 igandea

■ **I. Tipi Tapa Pintxo ibilbidea** 14:30ak arte.

Herria Garbi II. Eguna, abenduaren 6an

Konstituzio Espainiarraren Egunerako, hau da, abenduaren 6rako auzolan eguna deitu dute Itaya Gazte Asanbladak, Usurbil Zero Zabor taldeak, Andatza Mendizale Elkartek eta Usurbilgo Udalak. Ekimena antolatzen duten bigarren aldia da.

Oraingoan, berri eman dutenez, "herriko bide bazterrak garbitzea da asmoa, izan ere bide dezente dira plastikoz, botilaz eta mota guztietako zaborrez betetak daudenak". Biltzeko hitzordua, hilaren 6rako goizeko 8:30etan finkatu dute, frontoian. Eskularruekin agertzera deitzen dituzte herritarrak. Iaz, uholdeak izan eta juxtu hilabetera deitu zuten Herria Garbi I. Eguna. Orduko hartan, Zumartegi industrialde inguruko ibai ertzak garbitzen aritu ziren.



8:30ean elkartuko dira frontoian.

KUTSADURAREN AURKAKO ELKARRETARATZEA

Azken hileotan bezala, Itaya Gazte Asanbladak deituriko kutsaduraren aurkako elkarretaratzea burutuko da. Abenduan ere, Atxegalden ez, Mikel Laboa plazan burutuko da kontzentrazioa. Abenduaren 7an ostirala, 20:00etan.

Datozenak

Ekozinemaldia, abenduaren 13 eta 14an

Usurbiltzen Elkartek eta Ekologistak Martxan taldekoek Ekozinemaldiaren edizio berri bat antolatu dute, abenduaren 13 eta 14rako. Hona hemen, bigunotan, iluntzeko 19:00etatik aurrera, doan, Sutegiko auditorioan ikusi ahal izango dena:

Abenduak 13, osteguna

- "El Oro o la Vida".
- "La MAT. A dónde nos lleva el progreso". Península zeharkatuko duen goitentsioko linea elektrikoa hizpide.

Abenduak 14, ostirala

- "The pipe", "La Tubería". Ingeleseztan, gaztelaniaz azpiztitulatuak.
- "Otro mundo es posible-La abuela grillo".

San Silvestre lasterketan, izen ematea

Abenduaren 31rako, Hurbilagok San Silvestreko herri lasterketa antolatu du. Adi, iaz bezala, aipatu kirol proban parte hartzeko izena Hurbilagoko kide diren establezimenduetan eman ahal izango baita, edota NOAUA!ren web orrian eta doan. Apuntatzeko epea laster irekiko da.

Elkarretaratzea, preso en alde

Azaroako azken ostirala dugu hau. Azaroaren 30 honetarako, euskal preso politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea deitu du Herrirak, ohi bezala, iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Odol Emaileen Eguna, izen-ematea

Abenduaren 8an ospatuko dute, Patri jatetxean. Izen emateko, telefono zenbaki hauek bategaratu behar da: 943 363 102 (Agustina), 943 366 040 (Maite), 943 370 723 (Jero), 943 372 487 (Marisol), 615 760 458 (Patxi).

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

TAXI 24h
USURBILEN

677 37 34 66 Joxe
943 36 21 78 Etxabe

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L

teilatua eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Gure hezkuntza eredu bateratua



prozesuan


%50

Aukera desberdinak eta alternatibak
landu, eztabaidatu eta eraikitzeko bigarren saioa
abenduaren 5ean, asteazkena
Potxoenean arratsaldeko 18:30etik 20:30era

0-16 hezkuntza
proiektua zehazteko
usurbildarrok
etorkizunerako
nahi dugun
hezkuntza-eredu
bateratua



Usurbil



Nahi dugun eskola



TIPI-TAPA

USURBILEN

**Pintxo berezia
+ edaria**
Urteko ardoa, txakolina
edo sagardoa

**Hileko lehen
igandean**
14:30ak arte

**300 euroko erosketa-balea
zozkatuko da**
Tipi-Tapa ibilbidea osatzen dutenen artean



TXAPELDUN



ARTZABAL



BORDATXO



AITZAGA



TXIRIBOGA



MOKADUEN OSAGAI NAGUSIA:

Bakailaoa

Zozketa: Abenduaren 2an, igandean, 14:30etan
Txapeldun tabernan

Eskuratu zure
Tipi-Tapa txartela
eta hasi zigiluak biltzen!

Antolatzailea:

hurbilag

Usurbilgo Merkataritza

Babeslea:



Usurbil
osaburu atez atez